

ezagutzen al
duzu Donostia?

Agirretolare

Amarako *Agerre*, *Agarre* edo *Agirre* baserri eta oinetxe ederra, ostatu, taberna eta sagardotegi ere izana, hogeita hamar bat urte bada desagertu zela. Etxea leku ezin hobe batean zegoen, muino zabal baten gainean, Amarako ospitaletatik hurbil, ekialdera. Gaur bere orubean moja batzuen ikastetxe-komentu-egoitza bat altxatzen da. *Agerre* galdu genuen, baina oraindik, Urumea ibaiaren ibarrean, Norteko (gaur Renfe) deituriko trenbidearen ondoran, *Agirretolare* baserriak zutik dirau. Badirudi bi *Agirre* hauek sendi berekoak zirela eta ziur aski tolarre-etxea izateko egin zutela etxe hau. Donostian, Amara auzoko *Agirre* oine-



«Agirretolare edo Lakatxana baserria Amaran. Urumeako ibarrean». Josu Tellabide.

txeko sendia entzuna izan zen garai batean. 1862. urtean, Donostia hiriko idazkari izan zen Lorenzo Alzatek egindako etxe zerrendek dioenez, Amara distrito edo auzoan «Aguirre» eta «Aguirre-tolare» baserriak azaltzen dira. XIX. mendekoak diren Gipuzkoako probintziko baserri zerrendetan «Aguirre»-z gain, «Aguirre-tolare», «Aguirre-Blancaflor» eta baita «Aguirre-Blan-

queador» aipatzen dira. Ez dut zalantzarik gaurko *Agirretolare* zela etxe hori. Gaur, *Agirretolare* izena kontrakzioaren ondorioz, *Arratole* bihurtu da; dena dela, bertako auzotarrek *Lakatxana* izengoitiaz ezagutzen dute. Hala ere, egun, izena eta izengoitia ia galdu ditu, izan ere etxe arrunta kontsideratu eta «Okendotegi bidea, 12» helbidea ezarri zaio, honela, «izena» ia galdu duen

etxea «izanan» geldituko da. Hiriko azken plan orokorraren arabera. Urumeako autobia egiteko bota egin behar da. Etxcarekin batera desagertuko dira betirako bere orma zaharrak eta hauekin batera barnean, oraindik, XVI. mendean harlanduz egindako arku ederreko etxearen sarrera nagusi zaharra.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO

ARGIBIDE KAFEZALEAK



KOLONBIA da Arabika Kafe garbituaren muduko ekoizlerik handiena. ANDEAK osatzen dituzten hiru mendilerroen azken zatiari esker, 1.200 eta 1.800 metro bitarteko altuera duten lur paregabeak ditu KOLONBIAK. Altueraz gainera bestelako ezaugarriak ere baditu bere alde: sumendi erako lurak, kafearen hazkuntzan ari diren familien arreta, alez ale biltzeko sistema, eta KOLONBIAKO KAFEZALEEN FEDERAZIOAREN kontrolak eta laguntzak. Guzti horri esker KOLONBIA nagusi agertzen da Kafe suabeen artean. BAQUE KAFEA suabe... suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.